



otsaila | martxoa
february | march

26

the balde



0€

ezkutuko sua
hidden fire

26



the balde

marzelo zelaieta 75
13. bulegoa
31014 iruñea
t. +34 948 12.19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 639 20 80 22

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sli
editore / editor: iñigo martinez.

zuzendaria / director: koldo almandoz.

diseinu burua / head of design: martin etxauri.

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: arantza subiñas, edu pinillos.

diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, sonia beroiz, igor astigarraga, txuma vazquez, marisa mantxola, angel aldarondo, ainara gorostiaga, txarly brown, berta oses.

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella.

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: peru almandoz, juan luís etxeberría, txarly brown, arkaitz billar, eider rodriguez, julen azpitarte, aitziber alonso.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, uxeta labrit, beltz-ae


web orria / web page: ainara gorostiaga.

ale honetako komikia / comic this issue: txo!?

ale honetako harpidetza orria / subscription page: uxeta labrit

inprimategia / printed at: espacegrafic.

lege gordailua / legal: na-3244/01



www.creativecommons.org



Ian berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net

LABURRAK IN BRIEF




THE BALDE FESTA

Aurten ere ez dugu hutsik egin. Japoniar istorioak kontatzen zituen 25. alearen aurkezpena Durangon egin genuen. Gure festen ohiko soinu banda, Makala DJ handiaren eskuetan egon zen. Harekin batera Konsul-ek ahotsa jarri zuen hainbat pasarteetan eta irudi alorra dropezframes VJ kolektiboak garatu zuen. Urtero inguratzen diren fijoak eta jende berria ere azaldu zen Atxo Fun Fun tabernara. A, eta zin egiten dugu datorren urtean ez dela fokua piztuta telebista kamerarik sartuko!

THE BALDE PARTY

We didn't miss it this year either. We made the presentation of the 25th issue about the Japanese stories in Durango. The typical soundtrack of our parties was by DJ Makala. Konsul sang in some of the passages and the image was completed by dropezframes VJ kolektiboa. Some of the regulars and some new ones showed up in Atxo Fun Fun bar. And we promise next year there will be no TV camera in there!

LAGUN UGARI INGURATU ZEN 25. ALEA OSPATZERA




ESCRIVA DE BALAGUER KOMIKI HEROI

Escriva de Balaguer Vatikanon beatifikatu zuten garai berean beatifikatu zuten Iruñean Txarly tximua. Beatifikazio harekin batera, Txarly tximua protagonista zuen komikia kaleratzen hasi zen Tmeo aldizkaria. Beno, ba Txarly tximuarekin parekatu nahian edo Escriva de Balaguerrek azkenean lortu du komiki propioa izatea.

ESCRIVA DE BALAGUER COMIC HERO

The same time Escriva de Balaguer was beatified in Iruña was also the time when Txarly the monkey was beatified. At the time, some comics where Txarly the monkey was the main character were published in Tmeo magazine. Finally, maybe because he wanted to be like Txarly the monkey, he got to have his own comic.



KLARIONA PINTURAK KALEAN

Edozein hiri turistikotako klasiko bat dira honezkerok kaleetan tizaz margotzen duten artistak. Hiriaren legedia eta munipen umorearen arabera, kalean bertan edo paperean egiten dituzte euren lanak kale margolari hauek. Guk, sarean, fenomeno hau topatu dugu eta bere lana ikusi ostean, klariona margolarien artean enperadore izendatzea erabaki dugu.

<http://users.skynet.be/J.Beever/>

CHALK PAINTINGS

The artists that draw with chalk in the streets are very popular in every tourist city. These street artists, depending on the law and the mood of police officers, make their works in the streets or in paper. We found this phenomenon on the net and after seeing their works, we decided to name chalk the emperor of drawers.

<http://users.skynet.be/J.Beever/>



NOISE ON TOUR. MARTXOA 23-24. SALA SANTANA 27

Martxoaren 24erako ez duzula planik? Oraindik urrun geratzen da, bai, baina hala ere zure agendan apuntatzeko zita baten berri emango dizugu. Lagunei abisatu (lagunak badituzu, ezta?). Etzazula gero "ai!, jakin izan banu" eta horrelakorik esan... Bevis Frond+Federation X+ Mother Superior+The Cynics+Kuraia+The D4+The Bellrays.

E-CUERPOS.COM BODIES FOR SALE

We don't know if this is true or a joke on the Internet. And we say we don't know it because doctors have demonstrated that we cannot see the face of one of our relatives in another person's. Therefore, this web page offers you the possibility to buy body pieces either to complete a collection or to complete your personal Frankenstein.

www.e-cuerpos.com

NOISE ON TOUR. MARCH 23-24. SALA SANTANA 27

So, no plan for March 24, right? Well, it might be still far away but we'll give you an event that you must write down in your agenda. Tell your friends (you've got friends, right?) Don't you say "if I had known.." and stuff like that. Bevis Frond+Federation X+ Mother Superior+The Cynics+Kuraia+The D4+The Bellrays.

GORPU ZATIEN SALMENTA

Ez dakigu egia edo internet txantxa bat den. Eta ez dakigula diogu, honezkerok, gure senitarteko baten aurpegia beste pertsona batean transplantaturik ikusi dezakegula frogatu digutelako medikuek. Beraz, bilduma egiteko edo, zure Frankenstein partikularra osatzeko faltan dituzun gorputz zatiak erosteko aukera ematen dizu ondorengo webguneak...

www.e-cuerpos.com

IT'S ONLY
ROCK AND
ROLL BUT WE
LIKE IT!



V HONETAN EZ DAGO ARRATOI GOURMETIK

PICTOPLASMA

3D diseinuko biblia iruditzen zaigu liburu-DVD berezi hau. Animazio abangoardistenetarik komertzialenera. Denetarik topa daiteke. Eta bertan topatzen ditugun proposamen guztiek uzten gaituzte aho bete hortz. Eskaintzen duenerako ez da garestia, eta konturatu gabe, behin eta berriro bisitatuko duzun erreferentzi liburu bihurtuko zaizu berehala.

www.pictoplasma.com



PICTOPLASMA

We think this book-DVD and its 3D design is the bible of design. It goes from avant-garde to the most commercial animation. One can find everything in this book-DVD. And all the proposals that we find in here completely puzzle us. Considering all it offers, it is not expensive and unconsciously, it will rapidly become a reference book that you will visit again and again.

www.pictoplasma.com

EZ EZETZ & THE UK EZIN "ETA BAPATEAN...". MARTXOAK 23. ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA

Maitasunak inguratzen gaitu. Edozein toki eta momentuan, nahiz eta gu konturatu ez, bere modurik xumeanean agertzen da. Eta horren aldarrikapena egin nahi du Giorgio Bassmattik "Eta bapatean..." emanaldi bakar honekin. Ez du errepikatuko. Etzazue gal maitasunari eskainitako kontzertu berezi hau. Giorgio Bassmattik dioen moduan honelako ekitaldiak ez direlako Nano batean edo 5 megapixel kameran edo USB edo Mini Dv batean gorde behar.

EZ EZETZ & THE UK EZIN "ETA BAPATEAN..." CC. ERNEST LLUCH. 23 MARCH 2006

Love is all around. In any place and moment, even if we don't notice it, love appears in its most humble way. And that is what Giorgio Bassmati wants to announce in this performance. He won't repeat it. You can't miss this concert dedicated to love. As Giorgio Bassmati says; this kind of events must not be filmed in a Nano, a 5 megapixel camera, a USB or a Mini Dv.

V FOR VENDETTA

Matrix sagarekin amaitu ostean (damutuko al ziren honezkerok 2. eta 3. atala filmatu izanaz?), Wachowski anaien lan berria Alan Moore-n komiki batetan oinarritzen da: V for Vendetta. Badirudi askorentzat komikia dela mende hasiera honetan zinea salbatzera datorren jarduera artistikoa. Baina oraindik ekoizle eta zine tiburoiek ez dute biñeta batetik bestera igarotzean gertatzen den magia islatzea lortu.

V FOR VENDETTA

Once the Matrix saga finished, (will they regret having filmed the 2nd and 3rd part?) the new work of Wachowski brothers is based on a comic by Alan Moore: V for Vendetta. It seems that for many people, it is the comic the artistic activity that is coming to broaden cinema. However, the producers and cinema sharks have not succeeded yet in showing the magic that happens when jumping from one comic strip to the next.



skunkfunk
www.skunkfunk.com

榮寶齋





ANIMAC (MARTXOAREN 2TIK 5ERA)

Urteroko zita. Errepikakorra da animazioaren mundua haurrentzat sorturiko marrazki bizidunetara mugatzen dela aipatzea. Urte asko dira, egunero Simpson familiarekin bazkaltzen eman ditugunak. Animazioaren aniztasuna erakusteko eta animatzaileen bilgune gisa sortu zen Animac. Animazioa, zine alorrean muga gehien hautsi dituen jarduera dela baieztatzen dugu beldurrik gabe. Eta sinisten ez baduzue animatu Animac-era hurbiltzen.

www.animac.info



DFOTO 2006

Maiatz hasieran ospatuko da argazkilaritza eta bideo garaikidearen azokaren 3. edizioa. Bertako eta nazioarteko galeria eta artista ezberdinek parte hartzen dute eta iaz 10.000 ikusletik gora bisitatu zuten Kursaal-ean ospatzen den irudiaren azoka hau. Agendan apuntatu...

SAY CHEESE!

GRAND THEFT AUTO SAN ANDREAS

Kotxe eder bat lapurtu, hiri erdiguneko bankua atrakatu, polizia ihes egin eta prostituta lirain batzuen etxean ezkutatu. Gure ametsak egi bihurtzen ditu honezkero bideojokoek historian bere tokia lortu duen Grand Theft Auto San Andreas jokoak. Bideojokoek biolentzia bultzatzen dutela diote aurrejubilaziotik gertu dauden adituek. Gure ustez biolentzia beste askok pitzen dute: Terelu Campos eta haren modukoak ikusten ditugun bakoitzean muturrekoak banatzen hasteko gogoa sartzen zaigu, baina halako sentimenduei aurre egiteko kotsola piztu eta terapia egiten dugu San Andreas bezalako jokoekin...

GRAND THEFT AUTO SAN ANDREAS

To steal a car, to rob a bank downtown, to escape from the police and to hid in the house of some attractive prostitutes... The game that gained its place in history entitled Grand Theft Auto San Andreas makes our dreams come true. The pre-retired experts agree that videogames foster violence. We think violence is promoted by many others: When we watch Terelu Campos, we feel the need to slap someone in their face. However, we face up to this by playing with games like San Andreas...

ANIMAC (2-5 MARCH)


Every year's meeting. It's redundant to say that the world of animation is reduced to some cartoons created for children. We have been having lunch with the Simpson family for many years. Animac was created to show the pluralism of the animation and as a meeting point for fans of animation. We confirm with no fear that animation is, in the field of cinema, the most successful activity. And if you don't believe it, go to Animac.

www.animac.info

DFOTO 2006

The 3rd edition of a photography and video fair will take place at the beginning of next May. Local and national galleries and artists take place and last year, more than 10,000 spectators visited this event in the Kursaal. Write it down in your agenda...





ITSUSIA HIL DADILA

LAUS 06

ATSEDEN BILA ?
LOOKING FOR PEACE ?



www.saiazgetaria.com

H. Roke Deuna 25 · Getaria Gipuzkoa · 34.943.140.143 E. info@saiazgetaria.com



golem LA MOREA 12_areto

golem BAIONA 06_areto

golem YAMAGUCHI 05_areto

golem LOS LLANOS 03_areto

golem

goi-mailako
zinea!

EROSI TELEFONUZ ZURE SARRERAK

948 222 333 www.golem.es

EROSI ORDENAGAILUZ ZURE SARRERAK

no comment
uxeta labrit • tetuan



neguko zirkua

harkaitz cano. susa.

Neguko zirkuan, bata bestearen atzetik, ipuinak azaltzen dira pistan. Eta ipuin bakoitzak emanaldi ezberdin bat eskaintzen digu. Ipuinek ez dute zerikusirik elkarren artean, baina ezagutzen ez dugun arrazoi batengatik, pailazo batek, akrobata batek eta emakume bizardun batek karpa berdinarean azpian izateko arrazoia topatzen dutela dakigun moduan, Canoren ipuin hauek eremu berdineko biztanleak dira. Mundua begiratzeko eta munduan begiratu izateko modu bat erakusten dute. Batzuk estetika izena ematen diote horri. Idazten duen jende asko dago, estilo propioa duen idazle gutxi ordea, eta Harkaitz Cano azken hauetako bat da.

In this novel, tales appear one after the other on the floor and every tale offers a different performance. These tales have nothing to do with each other. However, due to a reason that we might not know, we know that a clown, an acrobat and a bearded woman find a common reason to be under the big top. Cano's tales are inhabitants of the same area. They show a way to look at the world and to be looked at in the world. Some call it aesthetics. There are many people who write, but few writers who have a personal style and Cano is one of the latter.



si sabino viviría


iban zaldúa. lengua de trapo.

Nueva Euzkaditik honezkero suntsituta dagoen Lurra planetara detektibe bat bidaltzen dute Sabino Aranaren gorpuaren bila. Abiapuntuak eroa badirudi ere, detektibe bizioso eta bihotz gabearen pausoak jarraitzen hasten garenean, uste baino gertukoagoa den unibertso bat sumatzen hasten gara. Zientzia Fikziozko istorio zoro bat da. Cosmic Josemi detektibea A Confederacy of Dunces nobelako Ignatius Reilly ekartzen digu gogora. Eta putakume maitagarri honen bandoan jartzen gara lerroek aurrera egin ahala. Ez da Space Odyssey 2001, eta horri esker Si Sabino viviría-rekin ez zara une bakar batean aspertuko.

From Nueva Euzkadi to the destroyed planet Earth, a detective is sent to look for the body of Sabino Arana. Although the starting point might seem crazy, when we start following this depraved detective, we observe a universe that is closer than we believed. It's a crazy science fiction story. The detective Cosmic Josemi reminds us of Ignatius Reilly from A Confederacy of Dunces. And as lines go by, we go to the side of the charming son of a bitch. It's not Space Odyssey 2001 and so, with Si Sabino viviría you won't get bored.



paperpapers



alergia book

egile ezberdinak

Alergia, saihestezina den gaixotasun kroniko bat da. Gainetik kendu ezin duzuna. Tarteka esnatzen dena eta zure gorputzean guda eremua topatzen duena. Alergia barruan duzu eta kito. Eta alergia menperatu ezina izaki, harekin bizitzen ikasten duzunean, orduan hasten zara gaixotasuna menperatzen. Horrelako zerbait esaten diete liburu honen egileek hirietako paretak margotzeagatik kexuka azaltzen diren garbizale guztiei. Diseinuak, zirriborroak, grafitiak, 3D...

www.alergiabook.com

Allergy is a chronic illness and you can never get rid of it. It awakens from time to time and it finds a war area in your body. You have allergy inside of you and that's it. When you cannot get control over it and learn to live with it, that is when you start to control this illness. That's what the authors of this book tell to all the cleaners that complain for painting the street walls. Designs, smudges, graffities, 3D...

www.alergiabook.com



vredaman

unai elorriaga. elkar.

Unai Elorriagaren hirugarren eleberrri honek mundua ikusteko ezohiko modua aurkezten digu. Lau istorio ezberdin bateratzen ditu, Tomasena, lñes lehengusinarena, Mateo lehengusuarena, Piedad arkitekto famatu baten andregai izandakoarena... Pertsonaia bakoitzaren izaera oso modu sakonean landu du Elorriagak. Protagonista bakoitzari hizkera propioa eta mundua ikusteko mapa pertsonala eman dizkio. Eta kontakizunak aurrera egin ahala, irakurlearengan emozioak sortzeko gaitasun handia erakusten du sekretutxo gordetzen duen izenburu bereziko nobela honek.

Unai Elorriaga's third novel shows us an unusual way to see the world. It collects four different stories: the stories of Tomas, of lñes, the cousin, Mateo, another cousin and the ex girlfriend of a famous architect, Piedad... Elorriaga has depicted the personality of each character very profoundly. He has given each character his own way of talking and a personal map to see the world. As the story goes by, this novel with a strange title shows a way to awaken some emotions in the reader.





100% COTTON



MADE IN CHINA

gora euskadi made in spain (and china)

Azken bi hamarkadetan gure herrialdeko edozein festa edo ospakizun kolektiboen sinbolo eta ikur bihurtu da. Egun, zapia edo txapela janzten diren

moduan, etorkizunean *Gora Euskadi* txanoak jantziko dituzte errepresentazio historiko-folklorikoetan.

Milaka euskaldunek buruan jantzi eta munduan ibili izan duten *Gora Euskadi* txanoa Espainian fabrikatzen dela deskubritu dugu. Cordoban, hain zuzen ere. Beno, orain

arte Espainian fabrikatu dutela esan behar genuke. *Gora Euskadi* txanoen azken sortak Txinan egindakoak baitira. Eta ez dezala inork hemen esan dugunaren irakurketa ankerrik egin. Guk, *Made in Spain Gora Euskadi* txanoak eta *Made in China Gora Euskadi* txanoak berdin maite ditugu eta.



They've become the celebrated symbol and trademark of all our local festivals and celebrations over the last two decades. Though they wear neckerchiefs and berets in today's historical-folkloric stage and street performances, the *Gora Euskadi* (Up the Basque Country) cloth hats will surely take their place in the future.

Thing is, we've found out that the *Gora Euskadi* hats worn all over the world by thousands are actually made in Spain. Cordoba to be more precise. Well, that's where they were making them up until quite recently. The last bunch of *Gora Euskadis* to hit our shores were actually manufactured in China. And don't get us wrong. We love the *Spanish Gora Euskadis* and *Chinese Gora Euskadis* just the same.






wien

Viena Austriako hiriburua da. 2 milioi biztanle ditu, 200.000 babes ofizialeko etxe eta Bilbotik 1800 kilometrotara dago. Air Berlin-ek dio 25 euroren truke hara eramaten zaituela.

Aurten Mozarten heriotzaren 250. urteurrena betetzen da. Ospakizun nagusiak bonboi kaxari izena ematen dion musikariaren jaiotze datan gertatu dira (urtarrilaren 27-29), nahiz eta abenduaren 31 bitarte hamaika emanaldi izango diren.

Mozart 10 urtez eta 14 etxe ezberdinetan bizi izan zen Vienan. Zutik dagoen bakarra Domgasse kaleko 5 zenbakian dago. Etxebizitzak 180 m² ditu eta 2006.01.27tik aurrera 1000 m²-ko bizipen eremuan bihurtuko da. Vienak 200 museotik gora eta astero 17 emanaldi eskaintzen dituzten 3 opera ditu. Sarrerarik merkeena 3 eurotan dago eta 20 euroren truke beheko pisutik gozatu dezakezu operaz. Viena Card ezinbestekoa da, 17 euroren truke 72 orduz metroa, tranbia eta autobusa nahi adina erabili ditzakezu.

Kopazo batek 5,60 euro balio ditu. Eguneko menua 8 euro inguru. Eta zigarro amerikar kaxa batek 4,60. Edozein tokitan erre daiteke (tabakoa). Passage izeneko kluba hiriko guay-enetarikoa da eta lur azpiko hiru pasabide batuz eraiki zuten.





wien

Vienna is the capital of Austria and has a population of 2 million people. It also has 200,000 council houses and is 1,800 kilometres from Bilbao. Air Berlin will take you there for 25.

This year is the 250th anniversary of Mozart's death. The biggest celebrations for the man who gave us the bass drum were held on and around his birthday (January 27th – 29th), although there are still plenty more bits and pieces lined up from now till the end of the year.

Mozart lived in fourteen different houses during his ten years in Vienna. The only one still standing is N° 5 Domgasse Street. The house is 180m² and from January the 27th on it will become a 1,000m² visiting experience.

There are over 200 museums in Vienna as well as the three operas that put on 17 shows a week. The cheapest tickets are 3 and for 20 you can enjoy opera from the floor seats. The Vienna Card is a must. At 17 you get to use the underground, the trams and the buses as often as you like in 72 hours.

A large drink will cost 5.60 and you can get a meal for about 8. A packet of American smokes will set you back 4.60 and you can smoke anywhere, tobacco that is. Club Passage is one of the hippest places in the city and was built by connecting up three underground tunnels.

N B O N


URBAVER

testia / av amodio launa

MOZART
1756-1791

zoni

70



10a
Mostra
Internacional
de Cinema
d'Animació
de Catalunya
del 2 al 5
de marzo
Lleida

www.animac.info



organitzador
 Generalitat de Catalunya
 Institut Català
 de les Indústries Culturals

imac
 Institut Municipal d'Acció Cultural

LA PARRA
 Ajuntament de Lleida
 Àmbit de Cultura,
 Esports i Drets Civils



948 38 21 22
DISTURB US!

diseinu grafikoa, komunikazioa, web diseinua
 irudi korporatiboa, edizioa, maketazioa
 ilustrazioa, packaging, publizitatea...

estudiobitarte

marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea
 t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22
bitarte@estudiobitarte.com
www.estudiobitarte.com



baserri serial killers





argazkiak/shots: beltz-ae.com

estilismoa eta orrazkerak/art direction: naiz
makillajea/make up: ainhara muñoz

modeluak/models: iker eta unai, anerk,iker.k.



**AURKEZPEN
JAIALDIA**

10 EURO
egun asko boroa
+cd bat

DURANGO

MARTXOAK

info+www.musikherria.org

MUSIKHERRIA
HERRI DISKETXEA

BRANKA jazz
ostegunero everythursday


20-22 h Paseo E.Chillida 13 (peine de los vientos) Donostia www.branka-tenis.com

WWW.NONTZEBERRI.COM WEBGUNEAK ANTOLATUTA:

NF

nontzeflash.com
ANIMAZIO LEHIAKETA 2006

nontzefilm.com
II. Film Laburren Lehiaketa



AUDIO

testua/by: elektro



THE STRUGGLERS

You win
Acuarela Discos 2005

Denboran bidaiatzea bezala izan daiteke The Strugglersen diskoa entzutea. Folk eta rock doinuena nahasketa, hauen sustraiak batuaz eta Neil Young, Smog edo Will Oldhamen doinua gogorarazten diguna. Aipatutako musikariez gain Eddie Vedderen ahotsa ere gogora dator momentu batzuetan. Biolin, teklatu, mandolina, txelo edo bibrafono batekin osatzen diren piezak biltzen dira diskoan. "Racing Down One Path", "The Cascade Range" edo "I Tried To Repair" barruraino sartzen zaizkizun horietakoak dira.

Listening to The Strugglers record is a bit akin to taking a trip through time. Their music is a mixture of rock and folk, peppered with a dash of Neil Young, Smog or Will Oldham. The voice also has an Eddie Vedder ring to it at times. The songs on the album feature the violin, keyboards, the mandolin, the cello or the vibraphone. The likes of "Racing Down One Path", "The Cascade Range" or "I Tried to Repair" really can reach out and touch you.

ANARI

Zebra
Metak 2005

Ez da erraza Anariren disko batean batekin sentitu dezakeena kontatzea. Denbora iragan da eta bere diskoak entzuteko moduak ere aldatu dira. Hirugarren bakarkako disko honetan bere goranzko eboluzioarekin jarraitzen du eta handia bazen handiagoa egin da. Bere garaian Manta Rayren "Esperanza" diskoak transmititu zizkidan sentsazioak sortu dizkit niri disko honek. Rockeroagoa da eta agian horregatik zuzenagoa, baina Anari betikoa da, barrenak mugitzen dizkigun horietakoa.

It's not easy to describe just exactly an Anari record can make you feel. Time has passed and the different ways you can approach her records have changed. On this her third solo release she's continued to improved and if she was hitting the spot before, she's really digging into now. This record has sparked off the same sensations I got from Manta Ray's "Esperanza". The record is rockier and as a result more direct. But it's still Anari, the one who sticks her hands into you and whirls those feelings and sensations around.

ANORAK

A limited time only
Rhonda Records 2005

Jostailuek ere pop doinu politikak egin ditzaketela erakusten digu Kataluniako talde honek. Tartean Galesko musikari batekin osatutako proiektuak The Postal Service eta Her Space Holiday bezalakoak gogorarazten dizkigu bere kantuetan. Sinpleak izan arren, sendoak bilakatzen diren programazioek betetzen dituzte abestiak. Serioak "Falling", dibertigarriak "International airport", mingarriak "Another way" eta izugarriak "A new place". Aukera zabala hiruko honen debutean.

This three-piece from Catalonia (one of them is Welshie boyo from the valleys) show that Jostailuek can make some really decent pop songs. They sound a bit like The Postal Service and Her Space Holiday on some of their songs. Their tunes are simple but some really strong programming gives their music a real backbone. Serious on "Falling", amusing on "International Airport", painful on "Another Way" and absolutely amazing on "A New Place". There's plenty of choice on offer on this their debut.

EL INQUILINO COMUNISTA

Dogbox
Everlasting Records 2005

90. hamarkadan irudimen handiko talde ezberdinak sortu ziren Euskal Herrian. Donostian sortutako Buenawistako edo poparen inguruko Donosti Sound mugimenduekin batera Getxon talde andana hedatu zen. Horietako bat izan zen El Inquilino Comunista, oso markatuta zuen doinu soniko bat erakusten zuelarik. Gure artean guztiz ahaztuak ditugu talde hauek. Zorionez norbait gogoratzen da eta Getxoko taldera gerturatzeko aitzakia argitaratu berri da, Dogbox, taldearen ibilbidea kutxa berezian biltzen duena.

A lot of really imaginative bands sprung up around the Basque Country in the 90s. Along with the Donostia (San Sebastian) based Buenawista and the Donostia pop scene a whole heap of bands came out of the Getxo area. El Inquilino Comunista was one of them and they really had their own particular sonic melodic sound. All these bands have sunk without trace in this parts. Fortunately, somebody seems to have remembered and we now have a chance to delight in this band from Getxo once again with this box set "Dogbox" which takes through all their career.



Makala: 10

10



Jx. Brown



Makalak bere bakarkako disko berria kaleratu du "Hondartzan" (Metak 2005). Aurretik "Makala Plays Novophonic" (So Dens, Universal 2002) atera zuen, Javi "Pez" izartxoak dirdira egin zezan go biok lan egin genuen desagertutako zigiluak (ateak 2003an itxi zituen) atera zuen azken erreferentzia izan zen hain zuzen ere. Novophonic-eko kontroletan emandako garaia ostean, Mikel Unzurrunzaga Schmitz, bere kaxa zertaz kapaza den erakusten digu: Doinu jamaikarrak Zarauzko Hondartzan hartzen dute lur, latin soul funk txapelduna, surfa euskaraz, sinsemilla dub elektronika euskalduna, nahi duzun moduan izendatu. *

Makala has published a new solo album, "Hondartzan" (Metak 2005) after "Makala Plays Novophonic" (So Dens, Universal 2002), the last album that the recording company in Donostia published, in which both of us worked so that Javi "Pez" would shine and which eventually closed its doors in December 2003. After a phase in the controls of Novophonic, Makala aka Mikel Unzurrunzaga Schmitz shows what he is capable of doing all alone: the Jamaican sounds arrive in the beach of Zarautz, latin soul funk with txapela, surf in Basque, electronic elegant euskodub sinsemilla, call it as you want. *

10 Arrazoi egun disko bat grabatzeko

01. Karrii propioekin ekoizturiko diskoa egiteko beharra.
02. Besteen kolaboratzaile soilik izatean utzi eta proiektu propioetan sartzea.
03. Duela 8 urte dudan ametsa errealitate bihurtzea.
04. Barne satisfazioa.
05. Ongi pasatzea.
06. Musika banda bat osatzea.
07. Zuzenean jo eta kantatzeko.
08. Diskoaren kanturen batekin binozko singlea egin ahal izatea.
09. Disko track-en bat lagun ekoiztaren bati pasatu ahal izatea erremix-ak egin dituzan.
10. Nire ekarpen nimoioa egitea euskal musikan eta nazioartekoan euskeraz eta ingelesez kantatuz (the balde style).

10 Reasons to record an album nowadays

01. The need to produce an album with personal songs.
02. Stop being a mere collaborator to go in for my own projects.
03. Make a dream that I have been after for 8 years come true.
04. Personal satisfaction.
05. Fun.
06. Create a music band.
07. Perform and sing live.
08. Record some of the singles of the album in vinyl.
09. Give some of the tracks of the album to some producer friends to make remixes.
10. Contribute with modesty to the Basque and international music culture because I chose to sing both in Basque and English.

Berriro ikustea merezi duten film Movies to watch again

01. "Acción Mutante" Alex de la Iglesia
02. "The Harder They Come" Perry Henzell
03. "O'Brother where art thou?" Joel & Ethan Cohen
04. "A Clockwork Orange" Stanley Kubrick
05. "Endless Summer" Bruce Brown
06. "Jaws" Steven Spielberg
07. "Body Double" Brian de Palma
08. "The Birds" Alfred Hitchcock
09. "Total Recall" Paul Verhoeven
10. "Life of Brian" Terry Jones

Zure bizitza aldatu zuten kantu Songs that changed your life

01. "Guns Of Navarone" The Skatalites
02. "Funky Kingston" Toots & The Maytals
03. "Best Dressed Chicken In Town" Dr. Alimantado
04. "King At the Controls" King Tubby
05. "Freddy's Dead" Curtis Mayfield
06. "Rappers Delight" Sugarhill Gang
07. "Rock The Casbah" The Clash
08. "Ring Ring" De la Soul
09. "Dark Lady" Dj Food
10. "El Braille" Onze

Hondartzan diskoko ezinbesteko 10 puntuak

01. Black Soul Inspired Music For Ever!
02. Musika berotasuna (musika tresna organiko eta hauek jo zituzten musikari izatei esker)
03. Eskulana. Kantu bakoitza disko oso bat da bere baitan (edo hori zen nire planteamendua behintzat)
04. Nire eskaerei maisuki erantzun duten eskarmantu handiko 20 musikari.
05. Santanderreko "A Lone Ark Muzik Studios"-en grabatu izane, non garrantzitsuenaren soinua den, beste gauza gutxi gainerik.
06. Diskoaren diseinua: perfektua!!! (jende askok dio gauza bera... zerbaitegatik izango da).
07. METAK-entzat grabatzea: jende serio eta langilea.
08. Euskeraz egin izana ingeles apur bat sartuz.
09. Kantuen hitzetan nire munduko alor eta buruhauste ezberdinak islatu izana.
10. Diskoaren izenburua: %100 nire filosofia.

10 Essential pieces from "Hondartzan"

01. Black Soul Inspired Music For Ever!
02. Musical warmth (thanks to the organic instruments and to the musicians that performed them)
03. Craftmanship; every song is like an album on its own (or at least this was my ideal approach)
04. 20 high quality musicians who followed my demands perfectly
05. Having recorded in the "A Lone Ark Muzik Studios" in Santander where the most important thing is the sound and nothing but the sound
06. The design of the album: perfect!!! (Many people praise it there must be a reason behind it)
07. Record for METAK: hardworking people.
08. Having used Basque and some English.
09. Reflecting aspects and worries of my own life in the lyrics.
10. The title of the album: 100% the philosophy of my life.

Bizitzeko 10 arrazoi

01. Zarautz.
02. Nire familia.
03. Maite dudan gauzetan lan egitea.
04. Olatuak hartzea.
05. Musika konposatu, jo eta jartzea.
06. Lagun gutxi baina onak izatea.
07. Nire proiektuak aurrera ateratzea.
08. Nire alaba hazten ikustea.
09. Zoriontsu izaten saiatzea.
10. Irratsaio bat izatea..

10 Reasons to live

01. Zarautz.
02. My family.
03. Work in what I feel passionate for.
04. Surf.
05. Compose, play and djing.
06. Have few but enough friends.
07. Go on with my own projects.
08. See my daughter grow up.
09. Try to be happy.
10. Have a radio program.

10 Liburu ezinbesteko.
Essential books

01. "Sin Noticias de Gurb" Eduardo Mendoza
02. "El Tunel" Ernesto Sabato
03. "Treasure Island" R. Stevenson
04. "Las Inquietudes de Shanti Andia" Pio Baroja
05. "Miles Davis & Kind of Blue" Ashley Kahn
06. "La Maquina de Follar" Charles Bukowski
07. "Metamorfosis" Franz Kafka
08. "Obabakoak" Bernardo Atxaga
09. "Crónica de una Muerte Anunciada" Gabriel García Marquez
10. "Ulises" James Joyce

10 "Hondartzan" azaltzen ez diren kantu.
Songs that are not in "Hondartzan".

01. "Ali Baba" John Holt
02. "Groove is in the Heart" Deee-Lite
03. "Tv drug of the Nation" D. Heroes of Hiphoprissy
04. "Funky Nassau" The Beginning of The End
05. "I'm the Black Gold of the Sun" Nuyorican Soul
06. "Uptown Top Ranking" Althea & Donna
07. "Move On Up" Curtis Mayfield
08. "Upside Down" Fela Kuti
09. "Freak Out" Chic
10. "Jingo" Candido

10 Itzuliko zinatekeen club.
Clubs to which you would go again

01. "Marmol Bar" Zarautz
02. "Etxekalte" Donostia
03. "New York Club" Barcelona
04. "Nicolette" Iruñea
05. "Babylon Club" Madrid
06. "Atxo Fun Fun" Durango
07. "Harpune" Düsseldorf
08. "Kaffee Burger" Berlin
09. "Cafe Dublin" Vitoria
10. "Fonfone" Bcn

10 * Ordutuz geroztik gertatu diren gertakizun garrantzitsu:

01. Edith Unzurrunzaga Aristi jaio zen 2004. urteko urtarrilaren 27an.
02. Nire estudio propioa sortu nuen Zarautzen: FUNKEL. Unai DELOREAN-ekin batera sortuta, zeinak Bartzelonara egin zuen hegan berehala eta 12 TRIBUko Ladis eta Konsul sartu ziren.
03. Nire kontzertu kontzertu promotora independentea sortzen dut, MUSIK AKTS, zeinak KETARRIN (Getaria) mota eta jatorri ezberdineko taldeen 200 emanalditik gora antolatu ditu. Euskal eszenako jende ugari ezagutu eta parte hartu du nagusiki. SAROBE aretoan (Umieta) hilero antolatzen diren emanaldiak ere erreferentzi ari dira bihurtzen zenean.
04. Euskal Irrati publikoan hasten naiz lanean. Duetetik ostiralero APERITIFA saioan kolaboratzaile (Euskadi Irratia) era batean programa propioan. Asteburu eta jai egunetan, BOOM SHAKA LAKA saioa Euskadi Gaztean.
05. Gipuzkoako reggae roots talde garrantzitsuenaren musikariak ezagutzen ditut, 12 TRIBU. Hauetako musikari batzuek parte hartu dute nire diskoan.
06. Pez-en orkestrako musikariekin harreman estua izaten hasten naiz eta hauek ere nire diskoan parte hartzen dute.
07. Roberto Sanchez ezagutzen dut 12 TRIBUkoen eskutik. "Hondartzan" grabazeko teknika eta alkimia da eta lortu duen soinua bikaina!
08. TIAKUNPA taldeko musikariak ezagutzen ditut eta 12 Tribuarekin nire diskoan parte hartu dute.
09. Nire maketa METAK diskoarekin bidaltzen ditzate nire proiektuarekin bat egiten dutela osatzen didate!
10. Nire diskoaren discaua, merchandising-a eta nire web orria izango dituzte nire planeta honetako diseinatzailerik onena daukat alboan Txarly Brown nire lagun mina.

10 Bisitatu beharreko webgune.
Basic sites.

01. www.thebalde.net
02. www.silumsoundz.net
03. www.uptight65.com
04. www.apple.com
05. www.google.com
06. www.beltzarecords.com
07. www.musikametak.com
08. www.duplikat.org
09. www.yahoo.com
10. www.berria.info

10 * Important facts that happened since then

01. The 27th of January 2004 Edith Unzurrunzaga Aristi was born.
02. I create my own studio in Zarautz: FUNKEL. Established with Unai DELOREAN, who soon emigrated to Barcelona. I got two other collaborators, Ladis and Konsul from 12 TRIBU.
03. I create my own independent concert promoter, MUSIK AKTS, with which I have organized, in KETARRI (Zarautz) more than 200 performances of various types of music and origin and in which I have met many people of the Basque scene. Besides, I organize some concerts in SAROBE (Umieta) which are becoming an important reference in that area.
04. I work in the Basque radio in both my collaboration every Friday in APERITIFA (Euskadi Irratia) and my own program every weekend and holiday in BOOM SHAKA LAKA in Euskadi Gaztea.
05. I know the members of the most important reggae roots band in Gipuzkoa, 12 TRIBU with some of whom I worked in my album.
06. I know the members of the Orquesta Pez, with whom I collaborated in my album.
07. I know Roberto Sánchez by 12 TRIBU, the technician and producer of the recording of "Hondartzan". The sound he achieved is incredible.
08. I know the members of TIAKUNPA and collaborated with two of them in my album.
09. I send my demo to METAK and from the very beginning, they accept my project!
10. I have the best designer in the world, my friend Txarly Brown to achieve the designs of my album, the merchandising and my future first web site.

kea saltzen

Ukaezina da gastronomiak azken urteotan aurrerapauso handiak eman dituela. Sukaldaritza idazkietan, fisika, kimika eta batzuetan alkimia ere diruditen kontzeptuak irakurtzen ditugu (eta batzuetan ulertu ere). Iraultza ezberdinak bizi izan ditu gastronomiak dastamenari, testurari eta jakiak aurkezteko moduari dagokionez. Hurrengo pausoa usaimenari dagokio.


Kea, konbustio baten emaitza da, eta erregai batek isurtzen duen gasari ematen zaion izena. Aspaldidanik erabiltzen da kea

gastronomian. Ehunka urteetan, kearen zapore astuna izan da janaria kontserbatu ahal izateko ordaindu beharreko prezioa. Egun ke zapore horri *delicatessen* kutsua hartzen diogu. Ardoak eta beste hainbat edari alkoholikok ere keari zor diote bere nortasuna. Ardoa gordetzeko erabiltzen diren kupelen barnealdeak adibidez kiskali egiten dira mahats zukuak ke zapore ttanta bat har dezan. Gastronomian usaimenaren garaia dela esan dugu. Baina gas moduan iristen denez gure sudurrera zaila izaten da berehala zabaldu eta lausotzen den usainari eustea. Arrazoi horrexegatik, eta Alemaniatik ekarritako *Volcano* makinari esker, jakiek isurtzen duten usaina, biltzeko modua deskubritu dugu (konbustioaren

kutsadura ekiditeko lurrinaz lortzen du usaina makina honek). Honi esker, aukera berriak zabaltzen dira. Jaki zehatz bat aukeratutako beste edozein usainaren konpainiaz aurkez daiteke, kontraste eta konbinazio berriak sortuz. Askori, guzti hau, egungo gastronomiak kea saltzeko duen gaitasunaren adibide berri bat irudituko zaio. Zilegi da horrela pentsatzea, baina bestetik, sukaldaritzak esperimentaziorako eta jolaserako eskaintzen duen aukera eta aniztasunaren froga ere bada.

Amaitzeko, eta erretzea debekatua dagoen garai hauetan, bazkal ostea puru baten usainaz gozatu nahi duenak, aurretik aukeratutako puruaren keaz betetako poltsatxo irekitzea besterik ez du.





selling smoke

It can hardly be denied that huge advances have been made in gastronomy over the last few years. Poring through writing on cookery, we come across concepts that belong more in the fields of physics, chemistry and even sometimes alchemy (what's more, we even understand the odd one or two.) There have been several revolutions in gastronomy as far as taste, texture and dish presentation are concerned. The next step: smell.

Smoke is the name given to the gas resulting from combustion. Smoke has long been used in gastronomy. The heavy clogging

taste of smoked food was the price that had to be paid in order to be able to conserve food for hundreds of years. That taste is now regarded as being rather *delicatessen*. Wine and other alcoholic drinks owe quite a bit of themselves to smoke. For instance, the oak barrels used for wine are scorched on the inside so that the liquid of the crushed grapes gain a smoky taint.

As we mentioned above, we are now in the age of smell in the world of gastronomy. The problem is that smell reaches the nose in gas form and thus it is very difficult for the nose to hold on to those smells. However, and thanks to a little German gadget called *Volcano*, we have found a way to capture the perfume given off

by food (not by steam to avoid combustion smoke). This opens up whole new avenues of possibilities. You can pick a food and serve it with the smell of a different ingredient or foodstuff and in such a way create contrasts and new combinations. A lot of people will think that this is just another example of how modern gastronomy sells smoke. You're perfectly entitled to believe that if you wish, but it is nevertheless another irresistible opportunity for playful gastronomical experimentation.

To finish off in these smoke-prohibition times, as you're sitting there after a fulfilling meal and you have the urge to light up a good cigar, all you have to do is open your little smell bag.



KMI Koldo Mitxelena Kulturunea

Urdaneta 9, 20006 Donostia- San Sebastián
Tel: 943 112 750 - Fax: 943 112 755
www.gipuzkoakultura.net / sala@gipuzkoa.net

kulturunea

Artea, gertatzen den gauza
(1965 - 1980)
urtarrilaren 31etik martxoaren 25era
erakustaretoan

Arkitektura eta eskultura
Arantzazuko Basilikan.
Aurreproiektua, proiektua eta eraikuntza
(1950-1955)
otsailaren 8tik apirilaren 1era
ganbaran



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura




www.ladinamo.org

LADINAMO
ASOCIACION CULTURAL



ALDIZKARIA MAGAZINE
ARETOA MEETING POINT
ARGITALETXEA EDITORIAL

ANTZERKIA THEATRE
DANTZA DANCE
DJ-AK DJs



c/Mira el Sol, 2 • 28005 Madrid

that they are, one must not say, that they are not, one must not believe



direnik ez da sinistu behar, ez direla ez da erran behar







dirarik ez da sinistu behar,
ez direla ez da erran behar.

bainan, nor?

atsua ibarreko xoko batean galdurik...

egia zain den?

norbera aske.

hots... izan nahi dugun lekuan egoitea.

Xu bi du bi du uaaaaaaaaa... ..

that they are, one must not say,
that they are not, one must not believe.

but who?

an old lady in the heart of the valley.

truth?

no. freedom.

well... be where we want to be.

choo bee doo bee doo whaaaaa .





Urepele - Jaietxe

Salamanca pasealekua, 3 20003 Donostia • 943 42 40 40

Vredaman
Unai Elorriaga



elkar

UNAI
255
ELORRIAGA

*Malandro's
Paradise*

eragin.com

diseinu grafikoa, internet & argitarapenak • info@eragin.com






eraikitzen
en construcción
publiadk@publiadk.com

text/by: angel aldarondo



UNDER CONSTRUCTION
Web Hosting: www.ibercom.com



Aitzol.- Aupa Estanis, hitz egin al dezake orain? Niri ez esan lanpetua habilela...

Estanis.- Trankil, nagusia ez zagok, kalera irtengo nauk biriketan galipot pixka bat sartzera. Antikonjelantea ere bazeukatean jartzea tabakoan. Hau bai hotza!

Aitzol.- Deitzen nian zuen web orria oraindik "eraikitzen" duzelako, bi urte baino gehiago daramazue horrela. Kontuan izanik publizitatean eta web orrien diseinuan aritzen zaretela, nik uste diat badela garaia lehen harria, edo zimenduak, edo zerbait jartzekoa, ezta?

Estanis.- Aizak, hiru urte zaramatzat ideiak proposatzu, baina ez zagok adostasunik. Ezerk ez gaitik konbentzitzen, ez zagok ideia bakar bat, geu garena laburbilduko duen *leit-motiv* bat, gure filosofia, gure ikuspegia... ezagutaraziko duena.

A.- No te enrolles charlesboyer! Jubilata konplexua egiten ari zaidak hainbeste obra eta hainbeste "barkatu eragozpenak" ikusita. Bazirudik beldurrez zaudetela kalera irteteko, enpresa gisa definitzeko, zuen buruei etiketa bat jartzeko, nahiz horixe den zuen bezeroei egiten diezuen.

E....

A.- Ez hala? Ez zaituztet ulertzen. Beti kexaka zabiltzate bezeroek baztertu egiten dituztelako ideia orijinalak eta ausartak, beti aukeratzan dutela proposamenik txarrena. Hala ere, bezero perfektuaren aurrean topatzen zaretenean, atzera egiten duzue, eta "under construction" ditxosozko esaldia zintzilikatzen duzue. Eta azkenik ausartzen zaretenean, datu-base txiki eta ziztrin bat osatzen duzue, berehala eguneratu gabe uzten duzuen, abuztua arte "Eguberri zorionsua" esanez.

E.- Arrazoia duala iruditzen zaidak. Goi mailako joskintzako desfile baten ondoren jeansak eta kamiseta zuria jantzita daramatzan diseinatzailea bezala duk.

A.- Edo erretzeari uzteko behin eta berriz esaten dian medikua bezala, belarritik zigarroa kendu gabe. Sinesgarritasuna galtzen dik mezuak. Eta horixe duk gertatzen zaizuen, kontraesanez beteak zaudetela.

E.- Nik neuk uste diat planteamenduan bertan dagoela akatsa. la web orri guztiak, beren itxura alde batera utzirik, "enpresaren memoria" erakoak dituk. Internetek, beste edozein masa-hedabidek bezala, mezuak, ideiak, kontzeptuak... bidali beharko litizke, eta ez betiko txosten monolitikoak, "nor gara", "zer egiten dugu"... Telebistako kanpaina guztiak publi-erreportaiak balira bezala duk.

